



**SEME-ALABAK
DITUZTEN FAMILIEI
LAGUNTZEKO
ERAKUNDEEN PLANA**

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	5
-----------------	---

SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEEN PLANA

1.	Aurrekariak	9
2.	Plana egiteko arrazoiak	11
2.1.	Familiari gizarte laguntza emateko Europaren jarraibideekin bat.....	11
2.2.	Biztanleria zahartzen ari da.....	14
2.3.	Euskal herritarrek seme-alaba gehiago izan nahi dituzte	18
3.	Planaren helburuak eta neurri-multzoa	21
3.1.	Planaren helburuak.....	21
3.2.	Neurri-multzoa	22
4.	Lan-metodologia	23
5.	Lanaren neurriak.....	25
5.1.	Lana eta familia uztartzeko neurriak.....	25
5.2.	Familiantzako laguntza-zerbitzuen neurriak.	29
5.3.	Ekonomia eta zerga laguntzen neurriak	33
5.4.	Sentsibilizazio neurriak	37
6.	Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat datozen alderdiak	39
6.1.	Beste plan batzuekin bat datozen alderdiak	39

AURREKO KASUAK

Lehendakariak, 2000ko irailaren 22ko Politika Orokorrari buruzko Eztabaidan, seme-alabak dituzten familiei gobernutik laguntzeko erakundeen plan bat bultzatzeko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso horrekin, jaiotza-tasa handitzeko eta laneko eta familiako bizitzak uztartzeko politikak gauzatzeko gero eta nabarmenagoa den premiari erantzun nahi zaio. XX. mendean gertatu diren aldaketa sakonak familiaren egoera aldatzen ari dira. Beste hainbat aldaketa-eragileren artean, honakoak aurkitu ditzakegu:

- 1.- Familia unitateen aniztasuna, etengabe handitzen ari dena. Hori dela eta, gero eta ugariagoak dira guraso bakarreko familiak, eta familia-unitate hauskor horiek bazterketa-arrisku handiagoa dakarte.
- 2.- Bikoteko seme-alaba kopurua etengabe jaisten ari da, jaiotze tasarekin batera. Euskadiri erreparatuz, 1970ean bikoteko 2,82ko ugalkortasun tasa izatetik, gaurko -1998- 0,98ra izatera igaro gara.
- 3.- Gero eta urrutiago daude norberaren familia-proiektua eta proiektu horren gauzatzea (desdoikuntza). Hala, EA Eren planaren arabera, euskal familia gehienek seme-alaba gehiago izan nahiko lituzkete, baina nahi hori ez da gauzatzen, printzipioz, ez daudelako horretarako baldintza egokiak (baldintza materialak, elkarbizitzazkoak, edo lan-bizitzarekiko uztartzekoak).
- 4.- Familia-banantze bat gertatzen ari da zaharren eta adingabeen artean, eta ondorioz, gero eta gehiago dira bakarrik zaharrek osatutako familia-unitateak, eta gero eta gehiago adindun bakar batek osatutakoak. Zahar horiek gero eta zaharragoak dira gainera, gizarte-bazterketa nozitzeko eta osasunerako horrek dakarren arriskuarekin.
- 5.- Seme-alabek gero eta urte gehiagotan jarraitzen dute familiaren etxean.
- 6.- Elkarbizitza eta familia-unitatea gero eta hauskorragoak dira, gero eta gehiago dira zatitzen diren familiak, eta gero eta gehiago desegituratzen direnak eta gatazkatsuak direnak –bortizkeria kasuak barne-. Guzti horrek arrisku larria dakarkie familiakide ahulenei.
- 7.- Genero-arrazoiak direla eta egindako diskriminazioak gero eta gutxiago dira, eta beraz, gero eta handiagoa aukera-berdintasuna. Horren ondorioz aldatu egin dira norberaren eginkizunak *lana-gizartea-familia* harremanean.
- 8.- Elkarbizitzako familia sintetikoak sortzeko aukera, bereziki zaharren artean.

9.- Lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzea Europa mendebaldeko gizarte guztien arazoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere lehentasunezko gai bihurtzen ari da gizarteko eragile guztientzat; hori dela eta, euskal administrazio publikoak erantzun egokia eman behar dio gai horri.

Eusko Legebiltzarrak, 2000ko maiatzaren 5ean onartutako legez besteko proposamen batean, Eusko Jaurlaritzari txosten bat egin zezan eskatu zion, bertan ondokoa aztertzeko: alde batetik, seme-alabak dituzten familien egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bestetik, botere publiko horiek seme-alabak dituzten familien babes-sistema hobetzeko eta Europar Batasuneko estandarretara hurbiltzeko dituzten jarduketa-aukerak.

Jaurlaritzak, 2000ko ekainean, inkesta bat egin zuen, familien eta seme-alaba kopuruaren arazoari dagokionez biztanleen jarrerak ezagutzeko. Emaizak eztabaidaekin izan ziren: euskal biztanleen %54aren ustez, bi seme-alaba da kopuru ideala, eta %18aren ustez, hiru seme-alaba. Inkesta beste emaitza eztabaidaekin bat eman zuen: biztanleen %68ak adierazten du izan nahi duten seme-alaba kopurua ez izateko arrazoia ekonomikoa dela, eta laneko eta familiako bizitzak uztartzeko zailtasuna bereziki adierazten dute. Europako beste edozein herrialdetan dauden portaera-jarraibide berdinak dira horiek.

Hori guztia ikusirik, Jaurlaritzak Plan bat prestatzea erabaki du, honako helburua duena: seme-alabak dituzten familia guztiei laguntzea, familien tipologia eta osaera (senar-emazteak seme-alabekin, guraso bakarrekoak seme-alabekin, egitatezko bikoteak seme-alabekin, familia polinuklearrak, eta abar) eta seme-alaben izaera (biologikoak edo adopziozkoak) edozein izanik ere.

Horretarako, ekonomia eta zerga arloari, laguntzeko gizarte-zerbitzuei, familiako eta laneko bizitzak uztartzeari eta sentsibilizazioari loturiko neurri-sorta ezartzea erabaki zen. Seme-alabak dituzten familiei arreta-esparru bat eskaini nahi zaie, familia eta lan-arloetan dituzten aspirazioak ase ahal izan ditzaten.

ERAKUNDEEN ELKARLANA ETA KOORDINAZIOA

Argi dago onartu eta gauzatu behar diren neurrien tipologiak hainbat erakunde-eremuren parte-hartzea dakarrela, eta horregatik, Jaurlaritzak, plana prestatzen hasi zenean, erakundeen batzorde politiko bat osatu zuen, Eusko Jaurlaritza, foru aldundietako eta EUDELeko ordezkariekin. Batzorde honek, erakunde-ordezkaritza berdintsua zuten lan-taldeak eratu zituen, Europar Batasuneko estatuetan indarrean dauden neurriak aztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan izan dezaketen eraginkortasunaren eta ezartzeko erraztasunaren arabera lehentasuna izango duten neurriak aukeratzeko. Lantze-prozesu hori amaitu zenean, batzorde berari egokitu zitzaion proiektua, Gobernu-Kontseiluaren aurrean tramitatu baino lehen, onestea.

Erakundeen eta sailen elkarlan horixe da Planaren implementazioa eta garapena arautu behar duena. Planari laguntzeko eta plana gauzatzeko antolaketa-egituran, inplikaturik dauden erakundeek nahiz gizarteko eta ekonomiako agenteek parte hartu behar dute.

Era berean, plan honen eta jadanik onetsita eta indarrean dauden planen arteko elkarreragina -Enpleguaren aldeko Erakundeen Planarekin eta Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planarekin zuzenean; eta zeharka Etxebizitza Plan Zuzentzailearekin eta Landa Garapenerako Planarekin- kontuan izanik, jarduketak bateratu egin beharko dira hala betearazte-fasean nola emaitzen ebaluazioan.

Planak, Europan konparatu eta homologatu ahal izango diren jarraipen eta ebaluazio-adierazleak garatuko ditu, duen eraginkortasuna neurtzeko eta emaitza eta helburuen araberrako implementazioa era dinamikoan egokitzeko.

Garapen eta aplikazio-prozesuan, plan honek Europar Batasunak gaiari loturik ematen dituen jarraibide eta gomendioak bereganatuko ditu eta horietara egokituko da. Europako gizarte osoan bezala, hemen ere dagoen familia eta jaiotza-tasari loturiko arazoari erantzuteko sortu den plan honekin, EAEk familiei laguntzeko politiketan Europako batez besteko inbertsioa lortu nahi du.

Plan hau garatzean, era berean, familiaren menpeko beste kide batzuei dagokienez (adindunak, ezinduek, eta abar), familiari laguntzeko erakundeen eta sailen gainontzeko jarduketa guztiak bultzatu eta koordinatu beharko dira. Familiek ere, beren menpe dauden beste kide batzuei arreta eskaintzeko, ekonomia eta zerga alorreko neurriak, familiaren arreta eta lana uztartzeko eta laguntzako gizarte-zerbitzuak (etxeko laguntzako zerbitzuak, eguneko zentroak, eta abar) garatzeko neurriak behar dituzte.

Sektoreko Batzorde Iraunkorra

Familia Sektoreko Batzorde Iraunkorra eratuko da, familiari arreta eta babesa ematen dioten erakunde publikoen eta gizarte eragileen parte-hartzeko berariazko gune gisa. Batzorde hori kontsulta eta aholkularitzarako organoa izango da Eusko Jaurlaritzak Plan honi buruz proposatu edo emandako Lege egitamuei, xedapen orokorrei eta araudiei dagokienez. Bai batzordearen osaera, bai bere funtzioen garapena arau bidez zehaztuko dira.

Sektoreko Batzorde Iraunkorraren funtzioak honakoak dira:

- a) Familia-gaietan, Lege, Dekretu edo Agindu-proiektuei dagozkien diktamenak ematea.
- b) Familiari dagozkion programa eta plan orokor zein sektorialak egiterakoan elkarlanean aritzea.

- c) Familia gaietan dauden proposamen eta ekimenen inguruan aholkularitza ematea Eusko Jaurlaritzari eta beste administrazio publikoei.
- d) Familiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egiten dituen aurrekontu eta diru-laguntzako programen berri jasotzea.

Familiari Laguntzeko Erakundeen Batzordea

Erakundeen arteko koordinazioa, eta -Administrazio Publiko bakoitzaren baitan- sailen artekoa hobetzeko asmoz, eta Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plan honetatik eratorzen diren ekintzen inguruan, Familiari Laguntzeko Erakundeen Batzordea eratuko da, familia gaietan lan egiten duten erakunde publikoen lankidetzara, koordinazio eta partaidetzarako organo goren gisa. Batzorde horren osaketa eta bere funtzioen garapena arau bidez zehaztuko dira.

Familiari Laguntzeko Erakundeen Batzordearen funtzioak honakoak dira:

- a) Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Plana egin, garatu, aplikatu eta berrikusteko irizpideak proposatzea.
- b) Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Planerako proposamena egitea.
- c) Plan honen aplikazioaren jarraipena egitea, baita emaitzen ebaluazioa ere; eta, hala badagokio, behar diren egokitzapenak edo aldaketak proposatzea.
- d) Sail eskudunari ebaluazio txostena proposatzea urtero, Erakundeen Plana garatu eta egikaritu behar duten administrazio publikoek egiten duten aplikazioari buruz.

1. AURREKARIAK

Eusko Legebiltzarrak, 2000ko maiatzaren 5eko bilkuran, ondorengo legez besteko proposamena onartu zuen:

“Eusko Legebiltzarrak, familia lehentasun politiko gisa hartuz, Eusko Jaurlaritzari txosten bat egin Legebiltzarrera bidal dezan eskatu dio, bertan ondokoa aztertuz:

1) Seme-alabak dituzten familien egoera Euskal Autonomia Erkidegoan, eta botere publikoek beren jarduketa-eremuen barruan eskaintzen dieten arreta (zerga, lana, hezkuntza, etxebizitza, garraioa, eta abar), neurri horiek jaiotza-tasa igotzeko izan dezaketen eraginari loturik.

2) Botere publiko horiek seme-alabak dituzten familien babes-sistema hobetzeko (bere osaera edozein izanik ere) eta Europar Batasuneko estandarretara hurbiltzeko dituzten jarduketa-aukerak”.

Eskaera horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzak Erakundeen eta Sailen Batzorde bat sortu du, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren koordinaziopean, seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana prestatzeko.

Gizarte garatuen bilakaerak aldaketa sakonak ekarri ditu gizarte, lan eta familiako bizitzan, eta sare zibileko erakunde ezberdinek erantzun beharreko beharrian berriak planteatzen ditu. Gertatzen ari diren aldaketen artean, ondoko hauek azpimarra daitezke: jaiotza-tasen eta ugalkortasun-tasen beherakada nabarmena herrialde garatuetan, emakumearen lan-munduratzeko orokorra, bizi itxaropenaren luzapena, eta abar.

Egungo euskal gizartean, aipatu diren aldaketa eta joera horiek nabarmenak dira: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) jaiotza-tasa eta ugalkortasun-tasa Europako eta Munduko baxuenetakoak dira, emakumeek gero eta gehiago nahi dute lan merkatuan sartu, eta abar.

Hala ere, kontraesana dago beste zenbait europar herrialde garauen mailan jartzen gaituzten gizarte-asmo berrien eta seme-alabak dituzten familiei arreta eta laguntza eskaintzeko esparru globalik ezaren artean, izan ere, belaunaldi-ordezkatzea ziurtatu eta familia eta lan-arloan dituzten asmoak betetzeko aukera eman behar baitute. Kontraesan hori zuzendu nahian sortu da Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana.

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana eta bertan ezarritako neurriak, gaur egun Europako herrialde aurreratuetan eta Europar Batasunean bertan gauzatzen ari diren joera eta ekimenekin bat datoz.

2. PLANA EGITEKO ARRAZOIAK

2.1 FAMILIARI LAGUNTZEKO EUROPAREN JARRAIBIDEEN ILDOTIK

Ekidinezinezkoa da familiak gizartearen barruan duen egiteko oinarritzkoa aipatzea. Familia gizartearen oinarritzko osagaia da, horrentzat giltzarri diren zenbait funtzio egiten baititu:

- Balioen transmisiorako tresna gisa.
- Jarraipen-berme gisa.
- Gizarte-zerbitzu emaile gisa (seme-alabak, adindunak eta beste mendekoak zaintzea).
- Eta abar.

Egungo gertakizun batzuek (adindunen bizi-itxaropenaren luzapena, gazteek gurasoen etxean pasatzen duten denboraren luzapena, eta abar...) nabarmentzen dute familiaren egitekoak ez duela garrantzirik galdu, aitzitik, gizartearen oinarritzko osagaia izaten jarraituko du.

Gizartea ez bada gauza -administrazioaren politiken eta ekintzen bidez, bereziki-familiaren beharrei erantzuteko, horrek ezin izango ditu bete, etorkizunean, gizartean bertan dituen funtzioak. Gizartearen barruan berez duen egitekoa bete dezan, familiari laguntzea, gizarteari berari laguntzeko modu bat da.

Hala eta guztiz ere, espainiar Estatuan, Europako hegoaldeko beste herrialdeetan bezala (Italia, Grezia eta Portugal, kasu) familiari laguntzeko sistema ez dago oso garatua, eta gabezi asko ditu:

- Oso laguntza gutxi daude familia eta lan-bizitzak uztartzeko.
- Hiru urtez beheko haurrentzat administrazioak finantzatzen dituen haurtzaindegien eskaintza oso txikia da.
- Familientzako diru-laguntzak oso eskasak dira.
- Eta abar.

Europako hegoaldeko herrialdeetan, familiak aurkitu dituen erronkei aurre egiteko (emakumeen laneratzea, biztanleriaren zahartzea, etab.) ez da askotan laguntza publikorik ematen, eta, ondorioz, familiek beraiek dituzten baliabideak erabili behar dituzte: "familia bakoitzaren kontua da bere burua babestea".

Zehazkiago, estatu Espainiarra eta Europa hegoaldeko beste zenbait estatu Europar Batasuneko beste zenbait estaturekin konparatzen baditugu, babes sozialeko gastuaren barruan familiari ematen dioten proportzioari dagokionez, alde handiak ikusi ditzakegu. Europako estatuak, batz bestea, %7 ematen baitiote, eta Europa iparraldekoek %10, Estatu Espainiarrak, berriz, %1 baino ez.

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planaren xedea behar horri erantzuna ematea da, hain zuzen ere, eta familiari gizarte-babeserako sistema bat emateko bideari ekitea, Europar Batasuneko herrialde garatueneren ildoari jarraituz (ikusitako A eranskina: "Europar Batasunean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ezarritako neurri eta politikei buruzko azterketa konparatiboa").

Halaber, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana eta ezarritako neurriak bat datoz, inolako arazorik gabe, Europaren egungo jarraibideekin, besteren artean:

- Europar Batasunaren kontseiluak eta Enplegu eta Gizarte-politikako Ministroen kontseiluak, 2000ko ekainaren 6an erabaki bat hartu zuten, batasun-kideei zenbait neurri gara ditzaten eskatzeko: a) Haurrak zaintzeko egiturak hobetzea, b) Laneko eta eskoletako orduak bateratzeko aukerak aztertzea, c) Enpresei, beren kudeaketan, langileen familiako bizitza kontuan izan dezaten eskatzea.
- 2001eko urtarrilaren 21etik 23ra bitartean, aukera-berdintasunari eta gizarte-segurantzari buruzko kontseilu informala egin zen Norrköping-en (Suedia), eta bertan hamabost herrialdeetako ministro eskudunak elkartu ziren. Besteak beste, jaiotza-tasaren behar kadaren arazoak eta emakumeak lan-esku gutxiko egoeran lan-merkatuan sartzeko aukerak aztertu ziren. Atera ziren ondorioen artean, ondokoa erabaki zen: a) Haurrak eta menpeko pertsonak zaintzeko kalitate goreneko zerbitzu merkeak ziurtatzea, laneko eta familiako bizitzak uztartzeko xedez. b) Hitzarmen eta lan-akordio malgu gehiago behar zirela azpimarratzea, aita-amei laneko eta familiako bizitzak uztartzeko aukera emateko.
- 2001. urterako Europako Batzordeak Enplegurako emandako Arau-Proposamenak jasotzen duenez, beharrezkoa da kalitatezko haurtzaindegiz-zerbitzu nahikoa eskaintzea, gizonak eta emakumeak lan-merkatuan sartu ahal izan daitezen: a) Estatu partaideek familiari laguntza emateko politikak ezarri, aplikatu eta sustatuko dituzte, haurrak zaintzeko zerbitzuak barne; horiek merkeak, eskuragarriak eta kalitate onekoak izango dira. b) Estatu partaideek laguntza-zerbitzuen eskuragarritasuna areagotzeko estatu-helburu bat ezartzea aztertuko dute.
- Eta abar.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko egungo Plana lehen urrats bat dela, familiari gizarte babesa emateko sistema oso bat ezartzeko bidean, eta oso beharrezkoa dela etorkizunean beste ekintza batzuekin jarraitzea:

- Une honetan Planak seme-alabak dituzten familiak baino ez ditu kontuan hartzen, baina etorkizunean, menpeko pertsonak ere babestu beharko ditu (adindunak, elbarriak, eta abar.).
- Une honetan Planak ordutegi malguko haurtzaindegietako plaza-kopurua ez da nahikoa eskaeraren %100i erantzuteko, etorkizunean helburu hori lortu beharko da.
- Une honetan diru-laguntzak txikiak dira, etorkizunean gehiago eta handiagoak izan beharko dute.
- Une honetan, lan eta familia bizitzak bateragarri egiteko Planak ezarritako neurrien onuradun gehienak lanpostu egonkorra dutenak dira, etorkizunean lan eta familia-bizitzak bateragarri egiteko eredu orokor bat garatu beharko da (nahiz eta hori oso alderdi mugatua izan, gure Erkidegoak dituen eskumenak direla eta).

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana hasiera bat baino ez da Europar Batasuneko herrialdeen artean gizarte-gaietan aurreratuak direnekin gastu-mailan parekatzeko bidean. Kontuan harturik herrialde horiek familia-gaietan egiten dituzten gastuen kopurua, bide luzea dugu oraindik egiteke.

1. TAULA Gastuak Familietan BPG. (%)

<i>Herrialdea</i>	<i>BPG %</i>	<i>EAEko BPGren gain (PTA milioiak)</i>
Frantzia	2,6	156.626,21
Austria	3,3	198.794,81
Danimarka	4,1	246.987,49
Espainia	0,4	24.096,34
Finlandia	4,2	253.011,57
Suedia	4	240.963,40
EB batez beste	2,1	126.505,79

Iturria: Geuk Egina.

OHARRA: beste herrialdeetako gastua (BPG%) aplikatuko balitzaio Euskal Autonomia Erkidegoak familia-arloan egin beharko lukeen gastua.

2.2 BIZTANLEEN ETENGABEKO ZAHARTZEA

Biztanleen zahartzea herrialde jakin bateko biztanleen artean dauden adindunen ehunekoaren igoera da. Gertaera hori berria da gizakiaren historian eta bereziki gertatzen ari da lurralde garatu guztietan: Europar Batasunean 60 urtetik gorakoak %20,6 izatetik 1995.urtean, 2050ean 33.9% izatera igaroko da.

2. TAULA. 1995 eta 2050 urteetan 50, 60, 70, 80, eta 90 urte gutxienez dituzten pertsonen ehunekoa (%) EBeko zenbait herrialdetan


(URTEAK) GUTXIENEZ DITUZTENEN EHUNEKOA (%)

ESTATUAK	1995					2050				
	50	60	70	80	90	50	60	70	80	90
Alemania	34.6	20.7	10.5	4.1	0.4	47.9	35.0	21.7	10.6	1.5
Espania	31.0	20.6	10,2	3.3	0.4	48.8	37.1	24.7	10.4	1.7
Frantzia	29.7	20.0	10.3	4.2	0.6	44.8	33.0	21.0	10.1	2.1
Irlanda	24.4	15.3	8.0	2.5	0.3	46.1	33.0	19.9	8.1	1.3
Italia	34.4	22.2	11.1	4.0	0.4	50.7	38.3	26.0	12.0	1.9
Erresuma B.	31.2	20.5	11.2	4.0	0.5	44.5	31.7	19.6	9.5	1.7
Suedia	33.6	22.1	12.9	4.6	0.6	41.8	29.1	18.1	8.5	1.5
EAE						50.6	38.2	26.0	12.6	2.0
EB	32.2	20.6	10.6	3.9	0.5	46.3	33.9	21.7	10.1	1.7

Iturria: Eurostat eta Prospektiker.

Euskal Autonomia Erkidegoa ez da gertaera horretatik kanpo gelditzen, eta datozen 25 urteetan jaiotza-tasaren jaitsierak eta bizitza-itxaropenaren igoerak ekarriko dituzten ondorioak ezagutuko ditu. Horren ondorioz biztanleen piramidearen oinarria bortizki txikituko da eta, aitzitik, izugarri handituko da gailurrean. EAE izango da, Italiarekin batera, gehien zahartuko diren herrialdeetako bat.

1.GRAFIKOA EAEko biztanleen piramidea, 1996



ITURRIA: EUSTAT.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen zahartzea fenomeno atzeraezina da, eta hori gertatzeko probabilitatea gure gizartea prestatzen ari den beste aldaketa gehienek izan dezaketena baino askoz handiagoa da, eta gainera oso azkar gertatuko da. Horrek sortuko dituen aldaketak hain garrantzitsuak izango dira, non, garaiz prestatzen ez bagara, konponbideak zailak izango diren.

Azken finean ordena demografiko berri baten aurrean gaude, eta horrek erronka handia ezarriko die familiari, sistema ekonomikoari eta gizarteari. Zalantzarik gabe, gobernu guztiek aldeztu aurretik prestatu eta lan egin beharko dute. Gainditu beharreko erronka gisa aurkezten zaigu euskaldunoi etorkizunari begira, Euskal Autonomia Erkidegoa baita ugalkortasun-tasarik txikiena duten Europako herrialdeetako bat.

Jarraian, ordena demografiko berriak jartzen dizkigun erronketako zenbait aipatzen dira:

Ondorioak Jarduera Ekonomikoan

Urte honen hasieran EUROSTATek argitaratu zuen, Holandako Estatistika Institutuarekin batera, ikerketa bat, eta bertan, EAE azaltzen zen, argi eta garbi, lan-esku gehien galduko zuen Europako eskualde gisa.

3.TAULA BIZTANLE AKTIBOEN ALDAKETA ERLATIBOA (%)

	1995-2010	1995-2000	2000-2010	2010-2025
UE-15	8.2	3.8	4.3	-4.4
Danimarka	4.3	2.8	1.5	-0.5
Espainia	10.3	5.9	4.1	-6.6
Frantzia	12.5	6.0	6.2	-3.2
Holanda	11.4	5.4	5.7	-1.3
Italia	4.7	3.3	1.4	-7.5
Portugal	9.2	4.4	4.6	1.0
Finlandia	1.8	0.9	1.0	-5.6
Suedia	-0.3	-1.2	1.0	1.3
EAE	-1.7	2.7	-4.3	-21.4

(*) Biztanle aktibo eta ez aktiboaren arteko erlazioa.

Iturria: Eurostat, 2001eko otsailaren 20a

2010 eta 2025 bitartean, Europar Batasuneko estatu gehienetan biztanleria aktiboaren jaitziera apala gertatuko da (inon ez %7,5 baino handiagoa). Europako eskualdeei dagokienez, 6k bakarrik ezagutuko dute %14 baino galera handiagoa, eta handiena EAEn gertatuko da, Europako 202 eskualdeen artean, %21,4rekin.

80 eta 90eko hamarkadetan jaiotako biztanle urriak lan merkatura iritsi ahala, aldaketa sakonak gertatuko dira:

- Enpresek estrategiak garatu beharko dituzte langile zaharrak erakarri eta ez galtzeko.
- Erretiro aurreratuak egitea gero eta zailagoa izango da.
- Lan merkatuan langile gazteek utzitako hutsuneak aukerak emango dizkie emakumeei eta langabetuei lan-merkatura sartzeko.
- Herrialde garatueto enpresek, horien artean EAEkoek, beste herrialde ez hain garatuetoan bilatu beharko dute zenbait lan-esku kualifikatu mota.
- Eta abar.

Ondorio Ekonomikoak

Jaiotze-tasaren jaitsiera bortitzak eta bizitza-itzaropenaren igoerak munta handiko erronka ekonomikoa plazaratuko dute. 2025ean, mendetasun ratioa (pertsonek aktibo eta ez aktiboen erlazioa) ratio altuena duten Europar Batasuneko estatuetoatik (Belgika eta Italia) oso gertu egongo da. Horren ondorioz, pertsona aktibo gutxiagok pertsona ez aktibo gehiago mantendu beharko dutela.

4. TAULA. MENDE TASUN RATIOA (*)

	1995	2010	2025
UE-15	1.195	1.103	1.216
Danimarka	0.858	0.862	0.914
Espainia	1.406	1.248	1.384
Frantzia	1.263	1.128	1.267
Holanda	1.097	1.034	1.160
Italia	1.508	1.411	1.519
Portugal	1.092	0.989	1.027
Finlandia	1.060	1.099	1.254
Suedia	0.964	1.050	1.126
Euskal AE	-1.280	1.194	1.486

(*) Pertsona aktibo eta ez aktiboen arteko erlazioa.
Iturria: Eurostat, 2001eko otsailaren 20a

Guzti horrek egungo pentsio-sistema publikoari eusterik egongo ote denari buruzko galdera plazaratzen digu, nabarmenki aldatzen delako pentsioak finantzatzeko kapitala ematen dutenen eta prestazioak jasotzen dituztenen arteko erlazioa.

Bestalde, gizarte-programen finantzazioa ere kolokan egon liteke, hemen ere aldatu delako pentsioak finantzatzeko kapitala ematen dutenen eta prestazioak jasotzen dituztenen arteko erlazioa. Gainera, adindun kopuruaren igoerak osasun-sistemaren gastua handitu dezake, 60 urtetik gorako adindunak direlako osasun gaietan gastu handiena sortzen dutenak.

Merkatuan izango dituen ondorioak

Biztanleen zahartzeak produktu eta zerbitzu-merkatu berriak sortaraziko ditu, zahar ezindu edota osasun ahulekoen bizi-kalitatea hobetzeko helburua izango dutenak, hain zuzen ere. Bestalde, aisialdi eta osasun-beharrei erantzuteko merkatu berriak ere zabalduko dira, gero eta gehiago izango diren pentsiodun horientzat.

Horretaz gain, 80 eta 90eko hamarkadako biztanleria urria lan merkatura iristek ondorio txarrak izango ditu hainbat sektoretako merkatuetan.

Familian izango dituen ondorioak

Biztanleen zahartzeak ondorio nabarmenak izango ditu familian. Zahar ezindu edo osasun ahulekoen kopuruaren igoerak presio handiagoa ezarriko du instituzio horretan, familia izan delako, usadioz, zaharrei behar izan dituzten zainketak eman dizkiena.

Ikerketa berrien arabera, beste herrialdeetan, gaixoen zaintzeko laguntzaile izan litezkeen %35 inguruk lan egiten dute, eta erdiek baino gehiagok lana utzi beharko lukete -edota eszedentzia edo lanaldiaren murrizketa bat eskatu- gaixoren bat zaindu ahal izateko. EAEn ere gertatzen da hori, euskal familiari buruz dakigunaren arabera, esan baitaiteke handia dela hil arte familiarekin bizi diren zaharren kopurua.

Guraso gaixoak zaintzen laguntzen dutenei egindako hainbat inkestetan, %30ek esaten dute ez dutela ondo lo egiten, %25ek esaten dute osasuna dezente hondatu zitzaiela, arazo fisikoak dituzten gurasoak zaintzen dituzten laguntzaileen %20 eta %30 artean depresio larriak jotzen ditu (%50era iritsi daiteke zahartzaroko dementzia kasuetan).

Horretaz gain, susmatzen dugu arazo erantsi bat dagoela, gurasoen arduraren hartzen dituztenek, askotan, zaindu beharreko seme-alabak ere izango dituztelako.

Etorkizunean, behar horiek izugarri handituko dira, eta beharrezkoa da familiari erantzun bat ematea. Familiari gizarte-babesa emateko sistema bat sortzeko beharra azaltzen da, berriz ere. Horren bitartez, seme-alabak ez ezik, menpekoak ere kontuan hartu beharko dira (adindunak, ezinduak, seme-alabak). Beraz, nahiz eta egundaino seme-alabak dituzten familiak baino hartzen ez baditu ere, etorkizunean mendetasuna duten pertsona guztiak hartu beharko ditu planak kontuan (adindunak, ezinduak, eta abar).

Neurri hauek ondo egokitzen zaizkie Europako egungo arauai, adibidez:

- Europako Batzordeak 2001 urterako emandako Enplegurako Arauen Proposamenean jasotzen denez, beharrezkoa da ardurapeko beste pertsonen laguntza emateko eskaintza nahikoa egotea, gizonak zein emakumeak lan merkatura sartu ahal izan daitezten. Beraz, honakoa egingo dute estatuek eta gizarteko solaskideek:
 - Familiari laguntzeko politikak ezarri, aplikatu eta sustatuko dituzte, beste menpekoak zaintzeko zerbitzuak barne. Zerbitzu horiek, merkeak, eskuragarriak eta kalitate gorenekoak izan beharko dituzte.
 - Gizarte-laguntza zerbitzuak ezartzeko estatu-helburu bat jartzea aztertuko dute, laguntza-zerbitzuen eskuragarritasuna areagotzeko.

Azken finean, EAEn, -gehien zahartuko diren herrialdea, Italiarekin batera-konponbideren bat aurkitu beharko zaio etorkizuna baldintzatuko duen zahartzeari. Ezarri beharko da hirugarren adinarentzako sistema bat, non adindunak dituzten familiei ematen zaien gizarte-babesa oinarritzatko izango den.

2.3. EUSKALDUNEK SEME-ALABA GEHIAGO IZAN NAHI DITUZTE

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikorako Bulegoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren enkarguz, EAeko biztanleriak izan nahi duen seme-alaba kopuruari buruzko bi azterlan soziologiko landu ditu. Gai honi buruz egin den bigarren neurketa da (lehenengoa 97. urtean egin zen). Informazioa 2000ko maiatzaren 30etik ekainaren 9ra bitartean bildu zen. Lagina 18 urtetik gorakoei zuzenduta zegoen, eta guztira 2000 elkarrizketa egin ziren.

Ondoren, galdeketa emaitzarik azpimarragarrienak aurkezten dira:

- Seme-alaba kopuru idealari dagokionez:

Euskal biztanleriaren %54ren ustez, seme-alaba kopuru ideala bi da. %18ren ustez, kopuru ideala hiru da, eta %7ak seme-alaba bakarra nahiago du. Gainera, %3ak laugarrena izango luke, %1ak bosgarrena, eta beste %1ek sei edo gehiago.

1997ko datuekin alderatuz, ikus daiteke gaur egun kopuru ideala bi seme-alaba direla uste duten pertsonen multzoa handitu egin dela, eta kopuru idealik ez dagoela uste dutenen multzoa txikitu egin da.

Emakumeek seme-alaba gehiago nahi dituzte gizonak baino, eta haien artean hiru edo lau nahi dituztenen ehunekoak handiagoak dira, eta bat edo bi nahi dituztenen artean gizonak dira nagusi.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 30 eta 45 urte bitartekoen artean, eta seme-alabarik ez dutenen, edo hiru baino gutxiago dituztenen, artean, kopuru ideala bi seme-alaba izatea da, eta aukera hori erabat nagusi da gainera.

- Gaur egungo gurasoek izan nahi duten seme-alaba kopurua ez izateko adierazitako arrazoiaren artean honakoak daude:

Biztanleriaren %68ak arrazoi bera adierazten du: dena oso garesti dago eta haurrak hazteak diru asko balio du. Ondoren, gehien aipatzen direnen artean: “ez baduzu lan egiten ezin diezu arreta eskaini” (%32), “erosotasuna, lasaitasuna eta askatasuna galtzen dituzu” (%26), eta “gaur egun seme-alabak berandu izaten dira, ama nahiko heldua denean” (%23).

Eta gutxiago aipatu diren arrazoiak: “haur bat izateak lan-aukerak galarazten dizkizu” (%14), “gehiago baloratzen dugu gure seme-alabek denetik edukitzea, anai-arreba gehiago izatea baino” (13%), eta “gaur egun haurrei arreta hobea eskaintzen zaie, eta ezinezkoa da askori arreta ona eskaintzea” (%12).

Gizonek ekonomiari eta erosotasunari loturiko arrazoiak emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte, eta emakumeek berriz, “lan egiten baduzu ezin diezu arreta eskaini” adierazten dute, gizonek baino gehiago. Ikasketa-maila handiagoa den neurrian, gaur egun haurrei eskaintzen zaien arreta hobeari garrantzi txikiagoa ematen zaio, eta garrantzi handiagoa ematen zaio lasaitasuna galtzeari eta emakumeak seme-alabak jadanik nahiko helduak direnean hasten direla adierazten dute.

Bestalde, EAEn dagoen errealitatea ezin da albo batera utzi: Europako ugalkortasun-tasarik apalenetako bat (0,98koa 1998. urtean), belaunaldi-ordezkapena bermatzen duen indizetik (2,1) oso urruti.

5. TAULA EBko eta EAEko epe-ugalkortasuna 1950etik

EB	1950	1970	1980	1990	1995	1996
Espainia	2,48	2,85	2,20	1,36	1,18	1,2
Italia	2,35	2,38	1,64	1,33	1,17	1,2
Portugal	3,14	2,71	2,20	1,51	1,38	1,4
Holanda	3,10	2,57	1,60	1,62	1,53	1,5
Suedia	2,20	1,92	1,68	2,13	1,73	1,6
Finlandia	--	1,83	1,63	1,78	1,81	1,7
Frantzia	2,93	2,47	1,95	1,78	1,70	1,7
Danimarka	2,57	1,95	1,55	1,67	1,80	1,80
Euskal AE	2,28	2,82	1,87	0,95	0,91	0,92

Iturria: EUSTAT, 2000eko martxoa.

Ugalkortasun tasa txikiak 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean hasi ziren nabaritzen EAEn, eta jaiotze kopurua bortizki jaitsi zen 20 urteko epean: 1975ean 40.000 jaiotza izatetik, 17.000 ingurura pasa da gaur egun.

Jaiotze-tasaren jaitsiera izugarri hau ez da EAEn bakarrik gertatu, Europar Batasuneko estatuetan gertatu da, oro har, eta biztanleriaren kategoria guztietan izan du eragina, erlijioa, gizarte-maila eta ikasketa-mailak direnak direla. Hala eta guztiz ere, EAEn gertatutako gainbehera halakoa izan da non Europako mailarik apalenetako batean kokatu den, Alemaniako *lander* batzuen eta Espainiako edo Italiako zenbait erregioren mailara iristeraino, Europako estatu guztiena baino apalagoa, beti ere.

Zalantzarik gabe, EAeko egungo ugalkortasun-tasak (0,98) euskal herritarrek nahi dituztenak baino txikiagoak dira. Europako Familiaren Behatokiak, 2000ko urteroko seminarioan honakoa baieztatu zuen: "...gizabanakoen planak gauzatzea –seme-alabak izatea, kasu- gobernuaren laguntzaren menpe dago... desiratutakoa baino beheragoko ugalkortasun-tasa bat egoteak zera esan nahi du: gizarte-laguntza eta zerbitzuetan eskasiak daudela...".

Egungo egoeraren diagnostikoak eramaten gaitu, berriz ere, familiari ematen zaion gizarte-babesean dauden gabeziei erreparatzera, eta argi dago beharrezkoa dela familiaren beharrei erantzuteko gauza izango den gizarte-babeseko sistema bat sortzea. Familiari gizarte-babesa emateko sistema bat, Europar Batasuneko herrialde aurreratuenetan dagoenaren antzekoa, eta Europako araei men eginez, familia guztien eskubide oinarrizkoenetako bat sustatzeko behar den bermea izango litzateke.

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana lehen urratsa da familiari gizarte-babeserako sistema bat garatzeko bidean. Sistema hori hazi beharko da, pixkanaka, EBean sozialki aurreratuenak diren herrialdeen mailara iristeko xedearekin.

3. PLANAREN HELBURUAK ETA NEURRI MULTZOA

3.1 PLANAREN HELBURUAK:

Seme-alabak dituzten familiei laguntzea. Haien garapena eta funtzionaltasuna sustatzea. Haien aniztasuna errespetatzea eta Europar Batasuneko familia-politika aurreratuenekin bat datozen neurriak ezarri.

Seme-alabak dituzten familiei laguntza emateko sistema bat abiarazi nahi da, honakoei konponbide bat emateko gai izango dena:

1. Ekonomia, gizarte eta lan alorreko oztopoak kentzea, familiek erabakitzen duten seme-alaben kopurua izan dezaten, eta horrela, euskal herritarrek sentitzen duten behar horri erantzutea.
2. Behar handian dauden eta seme-alabak dituzten familientzat, ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasuna hobetzeko laguntza-neurriak ezartzea.
3. Gai hauen inguruko arazoen konponbidean aurreratzea: garraioa, etxebizitza, merkataritza-guneak eta zerbitzu guztiak eskura izatea.
4. Familiaren eginkizun nagusietarako laguntza-tresnak sustatu eta eskaintzea, komunitatearen aholkularitza eta garapenaren ikuspuntutik.

Aldi berean, gizonek eta emakumeek jardun profesionaletan eta familia-bizitzan parte-hartze orekatua izan dezaten Europar Batasunak emandako jarraibideek, eta EAEko emakumeen aktibitate-tasa gizonezkoena baino txikiagoa dela (eta Europa iparraldeko herrialdeetako baino askoz txikiagoa -%100etik gertu-) jakiteak, generoaren gaia kontuan hartzerantz eraman gaitu, Planeko neurriak garatzerakoan.

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana lehen urratsa da familia-politika oso bat eraikitze bidean. Azken helburu hori lortzeko, beharrezkoa izango da beste ekintza batzuk ere egitea etorkizunean:

- Gaixo edota menpekoak dituzten familiei laguntza emateko neurriak ezartzea.
- Ordutegi malguko haurtzaindegien eskariaren %100i erantzutea.
- Diru-laguntzak handitzea.
- Lana eta familia uztartzeko eredu orokorra garatzea.
- Egoera berezietan dauden familiei berariazko laguntzak ematea.
- Eta abar.

3.2 FAMILIEI LAGUNTZEKO PLANAREN NEURRI-MULTZOA:

Neurriak bateratu egiten dira. Plan hau ongi bereizita eta, aldi berean, integratuta dauden lau zutabe edo multzo oinarritzat hartuta diseinatu da:

- Lana eta familia uztartzeko neurriak
- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko gizarte-zerbitzuak garatzeko neurriak.
- Ekonomia eta zerga arloko neurriak.
- Sentsibilizazio-neurriak.

Esperientziak erakutsi du multzo edo zutabe bakar batean oinarritu diren politikek porrot egin dutela; horregatik da hain garrantzitsua Plana hainbat zutabetan sostengatzea eta, aldi berean, plan integratua izatea.

Neurriak errealismoarekin garatu dira. Iparraldeko herrialdeetan garatu diren politikak aztertu dira (herrialde horien politikak emaitza onak lortzen ari dira, hala emakumea lan-munduan sartzeari nola jaiotza-tasa eta ugalkortasun-tasa igotzeari dagokienez), baina EAeko errealitatea kontuan izan da: presio fiskal txikiagoa, BPG txikiagoa, mugapen politikoak eta eskumen-mugak, familia eta kultura-eredu ezberdina, eta abar.

Neurriak, beren eraginkortasunaren eta ezartzeko erraztasunaren arabera aukeratu dira, zenbait kasutan kontrajarriak diren enpresarien, sindikatuen, gizonen eta emakumeen interesen artean adostasuna lortzen saiatuz.

4. LAN-METODOLOGIA

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundeen Plana, ondoko metodologiari jarraiki eratu da:

- a) 1. fasea: Erakundeen Batzorde Politiko bat sortzea, ondoko erakunde hauetako ordezkariekin: Foru Aldundiak (Ogasuna eta Gizartekintza), EUDEL, Eusko Jauriaritza (Hezkuntza, Lana, Gizarte Gaiak, Etxebizitza, Ogasuna, Emakunde, Garraioak, Kultura eta Lehendakaritza).
- b) 2. fasea: Europar Batasuneko herrialde ezberdinetan gai honi loturik dauden neurriak eta politikak bildu eta sistematizatzea, Danimarkari eta Finlandiari arreta berezia eskainiz.
- c) 3. fasea: Europar Batasunean dauden neurriak eta politikak Batzorde Politikoan dauden Sail eta Erakunde ezberdinetako teknikariei aurkeztea. Teknikariek lau lan-talde eratu dituzte, planak oinarritzat izango dituen lau multzo edo zutabeen arabera.
Lan-taldeen bilera bakoitzean, aurkeztu den neurri bakoitzaren abantailak eta eragozpenak aztertu dira, eta bidezkoztat jo denean, bilduta ez dauden beste aukera edo neurri batzuk barne hartzea eskatu da. Azkenik, EAE barruan izan dezaketen eraginkortasun eta ezartzeko erraztasunaren arabera lehentasuna izango duten neurriak aukeratu dira.
- d) 4. fasea: lan-bilerak ekonomiako eta gizarteko solaskide ezberdinekin:
 - Sindikatuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu nagusiekin egin dira bilerak: ELA, LAB eta UGT. Bestalde, CCOO ezin izan du aurrez hitzarturiko bi bileretan parte hartu.
 - Enpresei dagokienez, bilerak ugazaba-elkartetan nahiz banakako enpresetan egin dira. Elkarrizketak egiterakoan era askotako enpresak hartu dira kontuan: emakume askoko enpresak, emakume gutxikoak, enpresa multinazionalak, enpresa kooperatibak, elkarte anonimoak eta abar.
 - Ikasketa-maila, bizilekua, lan-egoera eta abar kontuan izanik, gizarte-perfil ezberdinetako zenbait emakume eta gizoni egin zaizkie galdeketak.
- e) 5. fasea: Planaren behin-betiko neurriak aukeratzea eta aurrekontu-kalkuluak egitea, lan-taldeek lehentasuna emandako neurrien eta gizarte eta ekonomia-solaskideekin egindako bileretan bildutako informazioaren arabera.
- f) 6. fasea: 2001eko apirilaren 24ko Erakundeen Batzordean Plana onestea.

5. LANAREN NEURRIAK

5.1. LANA ETA FAMILIA UZTARTZEKO NEURRIAK

5.1.1. SARRERA

Familiako bizi eta laneko bizi uztartzeko neurriek gurasoei denbora ematea dute xede, seme-alabak, gehien behar dutenean, zaintzeaz arduratzeko aukera izan dezaten. Laurogeita hamarreko hamarkadan garatu den familia-politikako modalitate berri honen azpian ideia nagusi bat dago, hots, laguntza beharreko senitartekoentzat beharrezkoak diren arreta hauek hurbileko senitartekoek hobeto eskaintzeaz gain, jarduera hau aberastasun eta gogobetetasun iturri izango da inplikaturako pertsonentzat.

Gaur egun eskumenen alorrean dauden mugak kontuan izanik, Teknikarien Lan-taldearen barruan lana eta familia uztartzeko bi neurri aukeratu ziren: eszedentziak sustatzeko neurriak eta lanaldi-murrizketak sustatzeko neurriak.

Azken urteotako aldaketarik garrantzitsuenetariko bat izan da emakumea lan-merkatuan sartu izana: gurasoen eszedentziak amatasun baimenaren luzapen eraginkorrak dira, aitek eta amek jaio berriaren premiak erantzutea izan dezaten, baldintzarik hoberenetan; lanaldien murrizketen bidez, ordea, gizonezkoek eta emakumezkoek familiako eta laneko bizi uztartzea izan dezaten saiatzen da.

Gaur egun Planean ezarritako familiako eta laneko bizi uztartzeko neurrien multzoa aurreneko pausua da laneko eta familiako bizi uztartzeko eredu integral baten garapen-bidean. Etorkizunean garatzeko ondoren azaltzen diren lan-ildoak urratu dira:

- Neurri horiek nekez aplikatu dakizkieke lan-egonkortasunik ez duten langileei (lana duten 25 eta 45 urte bitarteko amen ehuneko 50); izan ere, pertsona horiek ez baitute horren babesa hartzerik, eta, are gehiago, laneko egonkortasuneko egoera batzuetan langilearen kaleratzea ekar dezakete.

Beraz, langile batzuen lan-egonkortasunik eza da laneko eta familiako uztartzearen gakoetariko bat. Etorkizunean garatu beharreko laneko eta familiako bizi uztartzeko ereduak, langile guztiek izango dute neurri hauen babesa hartzeko aukera.

- Lanaldi partzialeko lanaldiari dagokionez, estatu espainolean nolabaiteko adostasuna dago horren gainean gaur egun dauden legeak bilatzen den helbururako nabarmen desegokiak direla adierazteko. Gizarte-eragileek lanaldi partzialeko kontratu zuzena garatu beharra azaldu dute.

- European, laneko eta familiako bizitza hobeto elkartzeko moduez eztabaidatzean, hizpide garrantzitsu bat da, hain zuzen, zelan sor daitezkeen familiarekin sentikorragoak diren lantokiak. Seme-alabak dituzten Europako familiek aspaldi adierazi dute ez daudela pozik oraingo egoerarekin.

Familiarekiko abegitsuagoak eta haren beharrekiko sentikorragoak diren lantokiak sortzen hasi beharko da (enplegatuei seme-alabak zaindu ahal izateko aukerak ematea, lan-ordutegi malguen, lanaldi partzialeko lanen, seme-alabak zaintzeko baimen-egunen bitartez, eta abar).

- Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoak —darabiltzan eskumenak direla-eta— muga izugarriak ditu laneko eta familiako bizitza uztartzeko zenbait neurri garatzeko (amatasunagatik baimenak eta prestazioak, besteak beste). Beharrezkoa da lan-arloan emateke dauden transferentziak estatuari eskatzea, laneko eta familiako bizitza uztartzeko eredu globala garatu ahal izateko.
- Eskolako eta merkataritzako eztabaidari ekin behar zaio: a) oporrak batez ere udan pilatzen dira, eta ez dira laneko ordutegiei egokitzen, gurasoei buru-hauste handiak ekarrita. b) Gaur egun arte, merkataritza-ordutegiei liberalizazioari buruz izandako eztabaidetan ez dira, ezertarako ere, familia-inguruko kontuak azaleratu.
- Gizarte eta ekonomia mailako egoeragatik (guraso bakarreko familiak, eta abar...) eta gaur egun ezarritako diru-laguntzen zenbatekoak direla eta talde horien eszedentzien eta lanaldi murrizketen eskaerak urritzen dira. Beraz, talde horientzako diskriminazio positiboko neurriak ezarri beharko dira.
- Eta abar.

5.1. 2. NEURRIAK

Eszedentziak

- Ordezkapen-kontratuen kasuan, enpresak gizarte-segurantzari egin beharreko kotizazioari %100eko diru-laguntza ziurtatzea.
- Aitatasun eszedentzia hartzen duen emakume langileari urteko 400.000 pezetako (2.400 euro) diru-laguntza, eta gizon langileari 500.000 pezetakoa (3.000 euro), 3 urteko gehienezko iraupenarekin. Kopuru hori, gutxi gorabehera emakumearen batez besteko soldataren %25 da.
- Aurreko diru-laguntza lortzeko, ez da beharrezkoa ordezkari bat kontratatzea.
- Diru-laguntzaren iraupena 3 urtekoa da.

- Itzultzerakoan lanpostua gordeta edukiko dela ziurtatzea beharrezkoa izango da.
- Neurri hau bateraezina da seme-alaba Eusko Jaurlaritzak finantzatutako haurtzaindegi-zerbitzuan sartzearekin.

Lanaldi-murrizketak

- Enpresak gizarte-segurantzari egindako kotizazioari %100eko diru-laguntza ziurtatzea, ordezkapen-kontratuen kasuan.
- Emakume langileari urteko 300.000 pezetako (1.800 euro) diru-laguntza, eta gizon langileari 400.000 pezetakoa (2.400 euro), murrizketa lanaldi erdikoa denean, eta urteko 225.000 pezetakoa (1.350 euro) emakume langileari eta 300.000 pezetakoa (1.800 euro) gizon langileari, murrizketa heren batekoa denean. Kopuru hori, lanaldi erdia murrizterakoan galdu duen batez besteko soldataren %70 da, eta %80 herena murriztearen kasuan, lanaldi murrizketa sustatzen delarik, eta ez eszedentzia, gizarte-eragileek adierazi bezala.
- Aurreko diru-laguntza lortzeko, ez da beharrezkoa ordezko bat kontratatzea.
- Ezinbestekotzat jo da lan eta gizarte-eskubiderik —antzinatasuna, eta abar— ez galtzea.

5.1.3. NEURRIEN ALDERDIAK

- a) Administrazioak lehendik ezarritako neurriei dagokienez, Planaren neurriek haien aplikazio-eremua zabaldu dute:
- Gizarte eta ekonomia eragileei egindako elkarrizketetatik ondorio bat atera zen: ez da ordezko bat kontratatu behar neurri horien onurak lortzeko, bestela ez ziren seme-alabak dituzten familiei laguntzeko neurriak izango, enplegua sustatzeko neurriak baizik.
 - Gizarte eta ekonomia eragileei egindako elkarrizketetatik beste ondorio bat ere atera zen: neurri hauek langile-multzo osoaren onurarako izan behar dute, hala enpresa pribatuko langileentzat, nola Administrazio Publikoko langileentzat, bestela ez litzateke seme-alabak dituzten familia guztientzako plan bat izango.
 - Gizarte eta ekonomia eragileei egindako elkarrizketetan agerian geratu zen ere eszedentzien aldean lanaldien murrizketak sustatuko direla.
 - Lan-taldeekin egindako bileretan ondoriozta daiteke esperientzia enpirikoak erakusten duela gizonak ez direla neurri horietan barne hartzen, eta nahiago dituztela lanaldi-murrizketak eszedentziak baino. Planak gizonen aldeko diskriminazio positiboko alderdi bat ezarri du, lehendik adierazi diren Planaren helburuekin bat datorren erantzukizun-eredu berri bat sustatzeko.

- Enpresariak neurri horien alde ager daitezen motibatuzko, enpresak langile ordezkoa kontratatuzko inolako kostu ekonomikorik ez izatea ezarri da.
 - Eszedentzia ez ordaindua izateak edo lanaldi-murrizketaren ondorioz gutxiago kobratzeak muga ez ditzaten eskaerak, langileentzako diru-laguntzak ezarri dira.
 - Danimarkan ezarritako ereduari jarraiki, gurasoen eszedentzia-aldia hartuz gero, ez dago seme-alabak 5 hilabete eta 3 urte duten bitartean hartzaindegietako zerbitzu publikoan sartzerik (gurasoen eszedentzia-aldia seme-alabak zaintzeko hartzen da).
- b) Gizarte eta ekonomia eragileekin egindako bilera eta elkarrizketetan, argi eta garbi ikusi da euskal emakumeak bere lan-espazioa aurkitu nahi duela. Hala ere, euskal emakumeak lan-erantzukizunak eta familiako betebeharrak uztartu nahi ditu, eta horregatik premiazko zat jotzen ditu euskal emakumeak uztartzeko neurri horiek.
- c) EUSTATen biztanleria aktiboari buruzko datuen arabera, neurri hauek lana duten 25 eta 45 urte bitarteko emakumeen erdia baino gehiagorengan (%57,3) dute eragin, eta lan egonkorra dutenei dagozkie.
- d) Neurri hauen beste alderdi positibo batzuk:
- Eszedentziak:
- Aita-amek beren seme-alabekin duten harremana sustatzen du, eta haurren bizi-kalitatea hobetzen du.
 - Hurbileko senitartekoek edo pertsona profesionalek ez dute umeez arduratu beharrik, eta aita-amei familiako bizitza izatea (aitatasunaz edo amatasunaz gozatzea) ahalbidetzen die.
 - Ez du lanpostua arriskuan jartzen.
- Lanaldi-murrizketak:
- Denbora gehiago ematen du bizitza pertsonalerako eta familiako bizitzarako, eta familia eta lana uztartzeko aukera ematen du.
 - Lanarekin lortutako diru-sarrera batzuk mantentzea ahalbidetzen du.
 - Enplegua sortzea ahalbidetzen du.
 - Bizitza pertsonalaren onarpena dakarte laneko bizitzaren barruan.
- e) Lanaldi-murrizketaren barruan, ondoko alderdi hauek aipatu behar dira:

- Enpresentzat batez ere lana antolatzeko arazoa da. Antolatzeko garaian malguak izateko gaitasuna ezinbestekoa da, eta hori enpresa bakoitzean ezberdina da; izan ere, txandakako produkzioa duten enpresetan malgutasuna lortzea oso zaila baita. Enpresekin landu beharreko puntu garrantzitsua da hau, garatu behar den lana eta familia uztartzeko eredu globalaren barruan.
- Ekonomia-eragileen ustez, langile guztiek lanaldia ordutegi berdinean murriztu nahi dute (seme-alabak haurtzaindegira eta eskolara eraman eta jasotzeko). Haurtzaindegi eta eskoletako sarrera eta irteera-ordutegietan malgutasuna beharrezkoa da, enpresek lanaldi-murrizketa kudeatu ahal izateko.

5.2. FAMILIENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN NEURRIAK

5.2.1. SARRERA

Familiei laguntzeko gizarte-zerbitzuen esparrua hedatzen ari da, eta baliteke European familia-politiken alorrean etorkizunik onena duten neurriak izatea.

Familientzako zerbitzuen barruan, Plana haurtzaindegi eta haur-eskoletan oinarrituko da, familien ongizaterako eta laneko eta familiako bizitzak uztartzeko oso garrantzitsuak direlako.

Planak 0 eta 2 urte bitarteko seme-alabak dituztenei eskainitako laguntzak oraindik ez dira heltzen gizarteren gaur egungo beharrak asebetetzera. Plana eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da tokien eskaintza pixkanaka handitzea, toki nahikoak izan arte.

Plana seme-alabak dituzten familiei baino ez die laguntza, laguntza beharrean dauden beste pertsona batzuk (edadetuak, ezinduak, eta abar) kanpo utzirik. Nolanahi ere, familiari dauden behar guztiak kontuan hartuta lagundu behar zaio, eta ezin da banandu seme-alabentzako zainketa edadetuen eta ezinduen zainketatik.

Plan honetan familiari laguntzeko gaur egun ezarritako zerbitzu-multzoa aurreneko urratsa da laguntza beharrean dauden pertsona guztien premiak kontuan hartzen dituen plan integral baten garapen-bidean. Etorkizunean garatu beharreko ondorengo lan-ildoak urratzen dira:

- Zerbitzu-hedadura handitzea, egon daitekeen eskariaren ehuneko 100era heldu arte.
- Seme-alaba ezinduak zaintzeko zerbitzuak garatzea; zainketa gehiago behar dute eta.

- Pertsona edadetuak zaintzeko zerbitzuak garatzea: seme-alabez gain,
- gure zaharrak dira familian laguntza beharrean dauden beste pertsona batzuk.
- Laguntza beharrean dauden beste senide batzuk zaintzeko zerbitzuak garatzea: seme-alabez gain, senide ezinduak dira familian laguntza beharrean dauden beste pertsona batzuk.
- Guraso bakarreko familiei laguntzeko zerbitzu bereziak garatzea.
- Familia-bitartekotzako zerbitzuak garatzea.
- Eta abar.

5.2.2. NEURRIAK

- a. Egungo sarea sendotzea: gaur egun, sendotu egin behar den hartzaindegi eta haur-eskolen sarea dago. Jaurlaritzak pixkanaka lortuko dituen helburu hauek ezarri dira:
 - 1. tarte (5 hilabete - urte 1): lau urteko epean, lortu beharreko hedadura-maila izan daitekeen eskaeraren %40koa izango da.
 - 2. tarte (1-2 urte): lau urteko epean, lortu beharreko hedadura-maila izan daitekeen eskaeraren %40koa izango da.
 - 3. tarte (2-3 urte): lau urteko epean, lortu beharreko hedadura-maila izan daitekeen eskaeraren %100ekoa izango da.
- b. Landa-guneetan eta udalerrri txikietan ikuskatuko diren Familiako Hartzaindegien sarea garatzen hasiko da, eta ondoko ezaugarri hauek izango ditu:
 - Udalerrri handietako hedadura berdinak ziurtatzea.
 - Lehen une batean, proiektu pilotuak garatuko dira, hartzaindegi-mota hori gure herriaren ezaugarrietara nola egokitzen den ebaluatzeko, eta zerbitzu-mota horrek izan dezakeen benetako eskaera ezagutzeko.
 - Landa-eremuetan adituek osatutako familia, Hezkuntza Administrazioaren ikuskatzepean, mutikoen eta neskatuen kargu egingo da bere etxean bertan, Danimarkan egiten duten moduan.
- c. Ordu-tegien malgutasuna: ordu-tegi-malgutasuna izango duten hartzaindegi eta haur-eskolek 12 orduko ordu-tegia eskainiko dute (horrela langileen eta enpresen beharrei erantzuten zaie).

Zentro guztiek ez dute ordu-tegi-malgutasuna eskainiko. Ordu-tegi-malgutasuna izango duten zentroen eskaintzaren banaketa, EAEn dagoen egitura demografikoaren eta dauden beharrezan araberakoa izango da, biztanleria-gune jakin bakoitzerako ordu-tegi malgua duen zentro bat egotea helburu izanik.

d. Sailen arteko lankidetzak eta koordinazioak:

- 0 - 3 urteko tarte osoak hezkuntza eta laguntza-izaera izango du.
- Hezkuntzaren arloak arian-arian hartuko du erantzukizuna hurrengo lau urteotan.
- Hezkuntza arloak 2-3 urteko tarteari eskainiko dio arreta.
- Hezkuntza arloak, Gizarte-gaien arloarekin batera, eskainiko dio arreta 0-2 urteko tarteari.
- Hezkuntza arloak, Gizarte-gaien arloarekin batera, eta Nekazaritzarekin lankidetzan, landa-gune eta udalerritxikiak hartuko ditu.

e. Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa:

- 1 eta 2. tarteak (0 -2 urte): posturen kostuaren %60a arte, titularitatea edozein izanik.
- 3. tarteak (2-3 urte): %60aren inguruan titularitate publikoa ez duten postuetan, eta titularitate publikoko plazen %100.
- Finantzaketaren gainerakoa aiten eta amen kuotei, beken politikari eta beste erakunde pribatuei egokituko zaie.
- Erditze anizkuntetako seme-alaben kasuan doakoak izango dira, betiere familiaren errentaren arabera.

5.2.3. NEURRIEN ALDERDIAK

- a. 0-3 urteko tartearen diru-laguntza: 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa ez den arren, Eusko Jaurlaritzak 0tik 3 urtera bitarteko tarteari laguntzak eskainiko dizkio. Haurtzaindegi eta haur-eskolen diru-laguntza oso garrantzitsua da soldata txikiak dituzten pertsonentzat, haurtzaindegia ordaintzeko lan egiten dutela iruditzen baitaie.
- b. Kuotaren berdintasuna: gurasoei ordaindu beharreko kuoten berdintasuna eskaintzea da helburua, gaur egun oso kuota ezberdinak ordaintzen baitira.
- c. Orduetegiaren laguntza-izaera eta malgutasuna: Europar batzordearen 2000ko Enpleguari buruzko Txostenean, Batasuneko estatuetan seme-alabak zaintzeko zerbitzuen kalitatea hobetzeko joera dagoela adierazten da, gurasoei orduetegi-malgutasun handiagoa eskainiz.

EAEn egoera berdintsua da. Gizarte Eragileek eta elkarrizketatu diren pertsonen adierazitakoaren ildotik, 5 hilabete-3 urte tarteak laguntzaren alorrak ukitzen du: a) Orduetegi malguak dituzten haurtzaindegi eta haur-eskolarik eza, euskal langileentzat arazo larria da, batez ere lana eta familia uztartzeko neurrietan barne hartu ezin direnentzat; b) Haurtzaindegien eta eskolen sarrera eta irteeretako orduetegiaren malgutasuna beharrezkoa da enpresek lanaldiaren murrizketa kudeatzea izan dezaten.

Ez da ahaztu behar, laguntzaren ikuspuntutik, hartzaindegi eta haur-eskolen helburua laneko eta familiako bizitzak uztartzeko aukera ematea dela. Planaren ustez, ezarri behar den hartzaindegi eta haur-eskolen ereduak ordutegi-malgutasuna eskaini behar du, horrela aita-amen benetako beharrezanean erantzun egokia eman ahal izateko (bestela ez diete ezertarako balioko kasu askotan).

- d. Hedaduren homogeneotasuna: gaur egun, tarte ezberdinetarako eskaintzen diren zerbitzu-hedadurak oso ezberdinak dira: a) %90koa 2-3 urteko tartean, b) %20koa 1-2 urteko tartean, eta c) %20koa 5 hilabete-urtea 1 tartean.

Planak egungo hedadura urtero pixkanaka-pixkanaka zabaldu nahi du, lau urteko epean 3. tartean %100eko hedadurara eta 1 eta 2. tarteetan %40ko hedadurara iristeko helburuarekin.

- e. Landa-gunea eta udalerrri txikiak: oro har, legeak edozein motatako neurriak gauzatzeko ezartzen dituen baldintzek ez dute udalerrri txikiak eta landa-guneetako errealitatea kontuan hartzen (normalki, hiriguneen arabera ezartzen dira).

Landa-gunean hartzaindegien premia bereziki larria da, zerbitzuak hirietan baino mugatuagoak direlako. Egindako elkarrizketetan, landa-guneetan lan egin eta haurra hazteko dagoen zailtasuna agerian geratu da, zerbitzurik ez dagoelako.

Planak udalerrri txikien eta landa-gunearen ezaugarri eta beharrezanetara egokitutako irtenbide bat ezartzea kontuan izan du, bertan, zerbitzu hauei dagokienez, aukera berdina izan ditzaten.

- f. Neurri horien beste abantaila batzuk:

- Emakumeen laneratzea ahalbidetzen du.
- Enplegua sortzeko iturria da.
- Sektore pribatua interes orokorreko helburu batean sartzea.
- Zenbait enpresa eta enpresa-talde, hartzaindegi malguen kostua diruz laguntzeko prest daude.
- Ekipamendu-inbertsioak, Landa-garapenerako Erein programaren bitartez finantza daitezke.

5.3. EKONOMIA ETA ZERGA-LAGUNTZEN NEURRIAK

5.3.1. SARRERA

Familia-politikak, gizartean errentaren banaketan alderdi berria sartzen du, eta honela, ondorengoen arreta eta zaintzan erantzukizuna duten familia-unitateei laguntzen die. Ildo horri jarraiki, errenta-transferentzia bat gertatzen da seme-alabak dituzten familien alde, ondorengorik zaindu behar ez duten familien aldean.

Europar Batasuneko herrialdeetan, ondorengoak dituzten familiek baliabide gehigarriak lortzeko dituzten bi bide bereiz daitezke:

- Subsidioen bitartez, familiek prestazio ekonomiko publikoak jasotzen dituzte, ondorengoren bat beren kargura dutenez, egoera ezberdin horri aurre egiteko.
- Errentaren gaineko Zerga Pertsonaletan zerga-kargen murrizketen bitartez.

Familia-subsidioak modernizatzea konpontzeke dagoen arazoa da estatu espainolean. Izan ere, gaur egun subsidiok laguntza-izaerako prestazioak dira, familia-politikaren benetako baliabideak baino.

Gaur egun Planean ezarritako neurriak mugatuak dira. Horrenbestez, etorkizunean ondoren azaltzen diren diru-laguntzak eta zerga-laguntzak ere garatu beharko dira:

- Baliabideak handitu beharra dago; hala, planean ezarritako subsidioez gain, familia-subsidio gehigarriak garatu behar dira, gizarte-arloan aurreratuen dauden Europako herrialdeekin parekatzeko:
 - Familiaren konturako seme-alabengatiko subsidioak: familiaren kontura bizi diren seme-alabengatiko familia-subsidioen erregimen batean, diruzko prestazioak hilerio edo hiru hilean behin jasotzeko eskubidea dute, besteak beste.
 - Guraso bakarreko familientzako subsidioak: gaur egun kasu gehienetan seme-alabak haien kontura dituzten emakume bananduek edo ezkongabeek osatzen dituzte, eta askok babes behar dute, komunitatearen eta senideen sareak ahultzean, pobreziaren eta gizarte-premiaren biktimak baitira maiz.
 - Eta abar.
- Elkarrizketatutako ekonomia eta gizarte eragileen ustez, EAeko zenbait langilek (soldata txikiak dituztenek) ez dituzte seme-alabengatiko zerga-arintzeak lortzen, aitorpenean ez direlako kenkari horiek lortzeko errenta-mailara iristen. Beraz, aitorten negatiboaren edo diru-laguntza berezien eredu bat aztertu behar da familia horientzat.

5.3.2. NEURRIAK

ZERGA-ARINTZEAK, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN.

- a) Baterako zerga-ordainketagatiko murrizketa. Baterako zerga-ordainketan, zerga-oinarrian ondoko murrizketak aplikatuko dira:

Araban eta Bizkaian: 364.000 pezeta (2.184 euro) urteko, aitorten bakoitzean.

Gipuzkoan: 500.000 pezeta (3.000 euro) urteko, aitorten bakoitzean.

- b) Ondorengoengatiko kenkaria: zergadunarekin bizi den ondorengo bakoitzarengatik, ondoko kenkariak egingo dira:

- 65.000 pezeta (390 euro) urteko, lehenengoagatik.
- 80.000 pezeta (480 euro) urteko, bigarrenagatik.
- 120.000 pezeta (720 euro) urteko, hirugarrenagatik.
- 150.000 pezeta (900 euro) urteko, laugarrenagatik eta ondorengo bakoitzarengatik.

- c) Hiru urtetik beherako ondorengoengatiko kenkaria: zergadunarekin bizi den hiru urtetik beherako ondorengo bakoitzarengatik, aurreko kenkariak gain, urteko 35.500 pezetako (210 euro) kenketa osagarria egingo da.

Aurreko bi kenkarietarako baldintzak:

- Ondorengoak zerga-aldia hasi aurretik hogeita hamar urte baino gutxiago izatea, ezinduen kasuan izan ezik.
- Ondorengoak zerga-aldian lanbide arteko gutxienezko soldata baino urteko errenta txikiagoak izatea (salbuetsiak barne).
- Dagokion zerga-aldian, gurasoenaz bestelako familia-unitateko inork (ondorengo unitate horretako kide izanik) lanbide arteko gutxienezko soldata baino urteko errenta handiagorik ez izatea (salbuetsiak barne).
- Dagokion zerga-aldian, ondorengoak zerga honen aitopenik ez aurkeztea.

Oharra: ondorio hauetarako, tutoretzagatik edo adingabeen babesaren arloan eskumena duen erakunde publikoaren aurrean formalizatutako ordaindu gabeko harreragatik zergadunari lotuta dauden adingabeak ondorengoekin parekatzen dira.

d) Seme-alaben elikagaietarako urteko kuotak ordaintzeagatiko kenkaria: Kode Zibilean ezarritakoari jarraiki ezkontzaren balio gabetasuna, banantzea edo dibortzioa ebazten den kasuetan, betiere judizialki onartutako hitzarmenean seme-alaben elikagaietarako urteko kuota batzuk hitzartzen badira eta zergadunak kuota horiek ordaintzen baditu, zergadunak eskubidea izango du kontzeptu honengatik ordaindutako kopuruen %15eko kenkari bat aplikatzeko. Kenkariak ondoko mugak izango ditu:

- 20.800 pezeta (168 euro) urteko, lehen seme edo alabarengatik.
- 26.000 pezeta (156 euro) urteko, bigarren seme edo alabarengatik.
- 31.200 pezeta (187 euro) urteko hirugarren seme edo alabarengatik.
- 40.000 pezeta (240 euro) urteko laugarren seme edo alabarengatik eta hurrengoengatik.

Kenkari hau bateragarria da ondorengoengatiko kenkariaren aplikazioarekin.

e) Seme-alaba ezinduengatiko kenkaria:

- 65.000 pezeta (390 euro), ehuneko 33 eta 65 bitarteko ezintasunagatik.
- 100.000 pezeta (600 euro), ehuneko 65 eta 75 bitarteko ezintasunagatik.
- 150.000 pezeta (900 euro), ehuneko 75 edo hortik gorako ezintasunagatik.

Kenkari horiek zergadunaren menpe dagoen ondorengo ezindu bakoitzari aplika dakizkioke –adina edozein izanik ere–, betiere zergadunak, dagokion zerga-aldian, lanbide arteko gutxienezko soldata baino urteko errenta handiagoak ez baditu. Kenkari hau, halaber, ezintasuna duen pertsona tutoretzagatik edo adingabeen babesaren arloan eskumena duen erakunde publikoaren aurrean formalizatutako ordaindu gabeko harreragatik zergadunari lotuta dagoenean aplikatuko da.

DIRU-LAGUNTZAK

a) Diru-laguntza bakarra emango da semea edo alaba jaiotzen den unean (bigarren seme edo alabarengandik hasita). Zenbatekoa seme edo alaba zenbatgarrena den kontuan hartuta ezarrita dago:

- Bigarrena: 1.100 euro (186.000 pezeta)
- Hirugarrena: urteko 1.100 euro (186.000 pezeta) bost urtera bitartean.
- Laugarrena eta hurrengoak: urteko 1.100 euro (186.000 pezeta) bost urtera bitartean.
- Diru-laguntza hauek unibertsalak dira.

b) Seme edo alaba bat baino gehiagoko erditzeen kasuan, ondoko diru-laguntzak emango dira:

- Bikiak: urteko 2.600 euro (432.600 pezeta) hiru urtera bitartean eta urteko 1.200 euro (200.000 pezeta) 10 urtera bitartean.
- Hirukiak: urteko 4.000 euro (665.000 pezeta) hiru urtera bitartean eta urteko 2.400 euro (400.000 pezeta) 10 urtera bitartean.
- Laukiak: urteko 5.400 euro (900.000 pezeta) hiru urtera bitartean eta urteko 3.600 euro (600.000 pezeta) 10 urtera bitartean.
- Boskiak edo hortik gorakoak: seme edo alaba bakoitzeko laguntza gehigarriak.
- Ezinduak: seme edo alaba bakoitzeko laguntzak bikoiztu egingo dira.
- Diru-laguntza hauek unibertsalak dira.

c) Familia ugarien kasuan:

- Unibertsitate-ikasketetako matrikuletarako laguntzak ezartzen dira.
- Etxebizitza-kredituak ordaintzeko laguntzak ezartzen dira baliabide urriko familientzat.

5.3.3. NEURRIEN ALDERDIAK

ZERGA-ARINTZEAK

Familiarentzako babesari buruz sortutako eztabaidaren ondorioz, 2000. urtean, hiru lurralde historikoetako foru-ogasunek 1998an hasitako prozesua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzekoa, sakondu dute (98ko erreforma horretako helburuetan jada familia bultzatzea nabarmentzen zen).

- a) Alde batetik, ondorengoengatiko kuotan kenkariak nabarmen gehitu dira (%30eko batez besteko gehikuntza).
- b) Bestetik, seme-alabengatiko familia-kenkarien gehikuntza horiek 2001. urtetik aurrera aplikatu ahal izango dira, hau da, 2002an egin beharreko PFEZaren aitortzearen bidez. Dena dela, urte honen hasieratik aplikatu daitezkeen atxikipenen tauletan agertzen dira aldaketa horiek eta, beraz, baliteke zergadunen atxikipenetan, familia-egoeraren arabera, kenkari berriekin bat datorren murriztapen bat aplikatu izana.

DIRU-LAGUNTZAK

- a) Europako estatu askok (Finlandiak, Danimarkak, Alemaniak, Ingalaterrak, Frantziak eta abar) familia-subsidio unibertsaleko sistema bat dute. Aipatu beharra dago Frantziak eta Alemaniak atzera egin dutela, baliabide-baldintzak dituen sistema batetik.

Era berean, seme-alabak dituzten familia guztientzako subsidio unibertsaleko sistema bat ezarri da EAEn. Gizarte-eragileei egindako elkarrizketetan eurek azaldu zutenenez, laguntza ekonomikoak garrantzitsuagoak dira eta gehiago baloratzen dira baliabide ekonomiko txikiagoak dituzten familietan.

- b) Seme edo alaba bat baino gehiagoko erditzeen kasuan ezarritako kopuruak handiagoak dira. Horrela, oso kostu ekonomiko garrantzitsuei aurre egin behar dion eta ahaztuta geratu ohi den kolektibo bati erantzun nahi zaio.

5.4. SENTSIBILIZAZIO-NEURRIAK

5.4.1. SARRERA

Teknikarien lan-taldeek eta eragile ekonomiko eta sozialek garrantzi handia ematen diete sentzibilizazio-neurriari. Izan ere, alderdi hau funtsezkotzat hartzen da Planaren helburuak lortzeko.

Iritzi hori ederki lotzen da gaur egungo Europako jarraibideekin eta politikoeekin, esate baterako:

- ◆ Enpleguari buruzko 2000ko Txosten Bateratuak dioenez, familien aldeko enplegu-politiken gaien enpresarien sentzibilizazio-maila handitzeko neurriak hartzen ari dira zenbait herrialdetan.
- ◆ Era berean, 2001erako Enplegurako Jarraibideen Proposamenean aipatzen denez, familia eta lana uztartzeko politikek enplegatuentzat zein enpresarientzat dakartzaten onurei buruz sentzibilizatu beharra dago.

5.4.2. SENTSIBILIZAZIO-NEURRIEN ILDO OROKORRAK (MEZUAK)

Teknikarien lan-taldean bileretan eta eragile ekonomiko eta sozialekin egindako bileretan, transmititu beharreko hainbat sentzibilizazio-ildo orokor (mezuak) identifikatu dira, ondoko taulan agertzen direnak, hain zuzen ere:

SENTSIBILIZATU BEHARREKOAK

ALDERDIAK	GIZARTEA	ENPRESAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOA
EGUNGO ETA ETORKIZUNEK O EGOERA	Seme-alabak gure etorkizuna dira.	Egungo egoerak enpresetan (eskulanean, zenbait sektoreren merkatuan eta abar) izango dituen ondorioei buruzko sentsibilizazioa.		
PLANAREN NEURRIAK	Neurri hauen publizitatea lagungarria da neurriak ezagutzeko eta pertsonak neurri horiek eskatzeko			
BALIOAK	Seme-alabak dituzten familien alderdi positiboak. Gurasoek beren seme-alaben hezitzaile gisa duten funtzioari balio handiagoa ematea. Seme-alabek gurasoen garapen pertsonalean laguntzen dute.			
GENEROA	Emakumeek gizarte-mailan lortutakoari buruzko balorazio positiboa. Ez dira amak soilik	Emakumeen kontratazioari lotutako errealitatea ez da dirudien bezain negatiboa, bere alderdi positiboak ere baditu.	Gizonek ere etxeko lanez arduratu behar dute.	
LANA ETA FAMILIA UZTARTZEA / ENPLEGUA	Komenigarria da lanaren eta familiaren arteko oreka aurkitzea; gizarte-sektore guztien onerako da.	Lana eta familia uztartzeko neurriak ez dira "etsipenez jasan beharrekoak" eta ez da haien aurka egin behar. Esperientzia erakusten duenez, familiarekin abegitsua den lantokia onuragarria da hala langilearentzat nola enpresarentzat.		Emakumeak dituen Lanbide Heziketako irtenbide profesionalak eskari handia dute.

6. EUSKO JAURLARITZAREN BESTE PLAN BATZUEKIN BAT DATOZEN ALDERDIAK

6.1. BESTE PLAN BATZUEKIN BAT DATOZEN ALDERDIAK

Eusko Jaurlaritzak onartutako planekiko zuzeneko lotura-puntuak ondokoak dira:

a. Enpleguaren Aldeko Erakundeen Plana:

Arestian adierazi bezala, seme-alabak dituzten eta aldi baterako kontratua duten langile gehienek ezin dituzte lana eta familia uztartzeko Planean ezarritako neurriak lortu. Lana eta familia uztartzearen funtsezko alderdi bat langileak lan-munduan sartzeari eta bertan irauteari lotutakoa da.

Ikuspegi honen barruan, Enpleguaren Aldeko Erakundeen Planean barne hartutako hainbat ekimen aipa daitezke:

- Lan-egonkortasunaren sustapena.
- Enplegura zuzendutako prestakuntza.
- Eta abar.

b. Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana:

Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planean, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planaren filosofiarekin bat datozen helburu eta ekimen batzuk jasota daude, ondokoak hain zuzen ere:

- Euskal gizartea etxeko lanen erantzukizuna gizonetzkoen eta emakumezkoen artean banatzeko beharraz sentsibilizatzea.
- Enplegua eta familia-erantzukizunak bateragarri egiteko aukera emango duten lan-baldintzak sustatzea.
- Gizonetzkoen eta emakumezkoen produkzio-lana ahalbidetuko duten eta familien beharrei erantzutera zuzenduta dauden zerbitzu soziokomunitarioen garapena sustatzea.

c. Eusko Jaurlaritzaren bestelako planak:

Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuek lotura tangentialagoa dute Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planarekin:

— Etxebizitza Plan Zuzentzailea:

Etxebizitzaren gabezia (jabetzan edo alokairuan) etxebizitzaren garestitasunak sortutako arazo erabakigarria da familientzat, bikoteek familia bat sortzea izan dezaten, bikoteek seme-alabak izan ditzaten, besteak beste.

Familia gehienek aurrekontuaren atalik handiena etxebizitzarena da, batez ere, errenta txikiena dutenentzat. Gaur egun, ez dago etxebizitzaren erreserba espezifikorik seme-alabak dituzten familientzat etxebizitzaren eskaintza publikoetan. Familiaren tamaina ez da kontuan hartzen etxebizitza-politikan.

Beharrezkoa da, horrenbestez, etorkizunean Etxebizitza Plan Zuzentzaileak familia-tamaina ere kontuan hartzea.

— Landa Garapenerako Programa: Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakundeek planak familientzako ezarritako zerbitzu- neurriekin zuzenean lotutako ildo estrategiko bat jasotzen da: neurrira taxututako haurtzaindegiz-zerbitzuak eta haurtzaindegizko beste jolasleku batzuk sortzen bultzatzea.